

## XABIER AIERDI

Deskribapena: Bilboko kale batean Kike “aniztasuna” hitzaren atzetik oinez agertzen da:

Kike: “Inoiz izan dugun aniztasun mailarik altuena dugu. Eta orain, aizue, barkatuko didazue, baina Xabier Aierdirekin geratu naiz.”

Deskribapena: Jendez inguraturik kaleetako imajinak agertzen dira lehenengo eta ondoren, teteria baten atarian Xabier Aierdi agertzen da eta Kike beregana hurbiltzen da, eskua emanez agurtzen duelarik.

Kike: “Kontxo Xabier, aspaldiko. Ongi?”

Xabier: “Kaixo, zelan bizi zara?”

Kike: “Barrura?”

Xabier: “Ederto, ederto, goazen.”

Deskribapena: Teteriara sartzen dira eta hurrengo imajinan, biak mahai baten inguruan tea hartzen ikusten dira.

Kike: “Xabier, esan daiteke Euskal Herrian inoizko aniztasunik handiena dugula?”

Xabier: “Bai, bai, aniztasuna inoiz baino handiagoa, e... Hemen aniztasuna sortzen joan da, ba, kanpotik etorri izan delako jende ugari, lehenengo eta behin Espainiatik eta aspaldian, ba, atzerriko herrialdeetatik etorri izan da, ezta? Eta orduan, ba, aniztasuna gero eta handiagoa da eta hori maila guztietan ikusten da.”

Kike: “Eta zenbat jende etorri da kanpotik azkenengo urte hauetan?”

Xabier: “Bueno, ba, ehun eta laurogei mila inguru kontsideratzen dut nik Erkidegoan eta beste hirurogeita bost mila edo, Nafarroan. Nik esango nuke, ba berrehun, ba, milioi laurden.”

Kike: “Eta horien artean zenbat hizkuntza hitz egiten dira?”

Xabier: “Beno ba, hori, datu kurioso bat da; Unesco Etxeak eta Ikuspegik egin genuen ikerketa bat bi mila zazpi zortzian eta deskubritu genuen ehun eta zortzi hizkuntza ezagutzen zituztela hemen zeuden atzerritarrek.”

Kike: “Ehun eta zortzi hizkuntza!”

Xabier: “Ehun eta zortzi hizkuntza ezagutzen zituzten.”

Kike: “Beraz, hemen jada titular bat atera genezake: Euskal Herrian, gaur egun, ehun hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira.”

Xabier: “Bai, halaxe da.”

Kike: “Jende askok, aniztasun hau, arriskugarritzat jotzen du euskararentzat.”

Xabier: “Bueno, alde batetik nik hori ulertu egiten dut, hau da, ba, azken finean, hemen izan egon gara azkenengo urteetan, ba euskalduntze prozesu batean, alfabetizatze prozesu batean, eta uste genuen ba, egonkortuak zeudela kontuak, ba, halako batean, etortzen zaizu biztanleria berri bat eta badirudi berrero hasi behar duzula eta gainera pentsatu behar dugu ba biztanleria horren ba, zati inportante bat gaztelerarekin datorrela. Bueno ba, hor nolabait, ba alarma batzuk piztu izana, logikoa da baina nik uste dut hor, ba, ikusi behar dugula ere, erronka berri bat egon litekeela ba bai hizkuntza horiek nola tratatu behar ditugun eta euskera berak ba zelan bide berriak aurkitu ditzaken.”